

Berrigara

Mendi astea

Diapositiba emanaldiak datorren astean

**MARTXAN JARTZEKO BEHAR
DUZUNA DAUKAGU**

**RENAULT
Ocasión**

zure auto berria

- 100 auto baino gehiago
- Autoaren errebisio zorrotza
- Autoaren proba, konpromiso barik
- Zeure neurriko finantziazioa
- 30 hilerainoko garantia




RENAULT

**MECA
BERGARA**

Amillaga 5
BERGARA

Tf. 943 76 40 68

deco-tex ZANGUITU alfonbrak



Herri lagunak 4. Tf. 943 76 08 69

Etixerako behar dituzun osagarri guztiak:

- Alfonbrak
- Edredoia
- Fundanordikoak
- Kortinak
- Toailak
- Izarak

TORREKUA



ERRETEGIA

Batik bat arraina • Karta • Eguneko menuak • Goizeko 7:00etatik zabalik



Ibargarai 37

Tf. 943 76 50 99



Berlingo harresia

Andres Osa "Sakona" / Irakasle eta kazetaria

Egun hauetan komunikabideen, bereziki telebisten, eginkizun nagusia Berlingo harresiaren inguruan jardunean aritzea izan da. Berau bota zutenetik, hamargarren urtemuga bete da eta Alemaniaren Errepublika Demokratikoa konkistatu. Kapitalismoak lortzen hori eskuratu du. Komunismo sistema edukinez hustu egin zen, sozialismo erreala izenarekin ezagutzen zen sistema hain zuzen.

Baina kontuan izan behar da, Sozialismoak hasiera hasieratik izan duela kapitalista sistemaren eraso bortitza. Erromako Aita Santuaren ahalegina ere ez da izan makala eta Mijail Gorvachoven Perestroikak, behar bada nahi gabe, baina presari ateak ireki zizkion. Horrela Alemania kapitalistak irentsi egin du beste Alemania.

Alemania kapitalistak jasan ezinezkoa zuen bi zatitan banaturik egotea sistema antagoinoak tarteko. Ipar Amerikak, bestalde, mundu guztia, bereziki komunismoa bere menpe hartzeko gogoia eta beharra izan du.

Ondorioak neurtu ezinalakoak dira. Oraingoan, jakin badakigu zer eragin txarra izan duen iraunketa horrek. Baina batez ere, gerora han bertan eta kanpoan eragin makurra izan dezake. Egun hauetan, urteurren hori dela eta, entzun izan ditugun gauza politak, gozoak, askatzaileak, arantzarik gabeko larrosak itsurazkoak besterik ez dira. Zampaketa lotsagarria bezain basatia izan da.

Alemania kapitalistak hori lortu duenean, komunismoaren arrasto guz-

"Bitartean, mundu guztiko telebista kateak, inperio berriaren aginduetara noski, sekulako propaganda egiten ari dira sistema kapitalistaren alabantzak lau haizetara barreiatuz"

tiak ezabatu nahi izan ditu. Dagoeneko, Alemania batua dago eta Errepublikak Demokratikoa zena orain miseria larrian gelditu da. Azken bolada honetan agertzen ari diren ikerketen arabera herritarrengan miseria ugartu da. Langa-bezia portzentai handitan gehitu da. Nekazaritzak sekulako jipoia jaso du.

Baina Berlingo harresia apurtuz Alemania bere inperioa beldurgarri zabalitzen ari da inguruko nazioengan sekulako eragina izanaz menpeko hartuz. Tamalez, harresi bat desagertu da baina handiagoak eta ustelkorragoak eraikitzen ari dira kapitalismoaren bide basatiak erabiliz.

Ezin ahaztu Alemaniaren inperio berriak konkistatu nahi dituela. Bitartean, mundu guztiko telebista kateak, inperio berriaren aginduetara noski, sekulako propaganda egiten ari dira sistema kapitalistaren alabantzak lau haizetara barreiatuz. Helburu bikoitza: Erne liteken sozialismoari lepoa moztu eta Alemaniaren morrontzapean jarri alboko herriak.<

barruan



Iñazio Arregi

Partaide ikastolen elkartekoa

"Gizartean ikastolek egindako lanarekiko errekonozimendu bat dago gaur egun"

8.



Roberto Laiseka

Euskaltel taldeko txirrundularia

"Tourrak ez digu loa kentzen. Hala ere, taldearentzat inportantea litzateke"

27.



Itziar Iturbe

Oñatiako Turismo Bulegokoa

"Oñati bisitatzera etortzen dien turista gehixenak estatukoak izan die oin arte"

33.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1993. Azaroaren 15ean Bergarako Gaztetxea itxi zen, Ertzantzak bertan entzerratuta zeuden 25 bat gazte desalojatu ondoren. Bergarako epaitegiak Gipuzkoako Elizbarrutiaren aldeko sententzia eman zuen, Komenio kaleko lokala berreskuratzeko. Lokaloi herriko gazteen topaleku izan zen 60ko hamarkadatik: "Juventudes Parroquiales Bergaresas" izenarekin lehenengo, "Bergarako Gaztedia" ondoren eta "Bergarako Gaztetxea" azkenik. Itxieraren kontrako protesta ekitaldiak ugariak izan ziren.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1969. Azaroaren 9an Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak sortu zen.

MUNDUAN GERTATUA

1922. Azaroaren 9an Jacinto Benavente idazle espainiarrari Literatura Nobel Saria eman zitoten.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzatza 5

6-11-19-21-42-49 (osag.22/itz.5)

Astelehena 8

6-9-16-23-36-41 (osag.27/itz.3)

Martitzena 9

4-9-16-21-41-49 (osag.40/itz.7)

Eguaztena 10

8-20-22-31-33-48 (osag.32/itz.2)

PRIMITIVA

Zapatua 6

6-7-20-40-43-45 (osag.10/itz.2)

Domeka 7 Saritzarra

15-20-21-32-43-48 (osag.11/itz.6)

ONCE

Eguakitzatza 5: 94.884 (199 seriea)


Astelehena 8: 67.311

Martitzena 9: 40.615

Eguaztena 10: 62.870

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Giroa freskatu egingo da eta eguraldi hodeitsua izango du-gu astebukaeran. Tarteka, eurria egingo du eta 900 metrotik gora elurra ere egin dezake zapatuan. Domekan, tenperaturak gora egingo du. Haizeak iparretik joko du.

Ilargiaren aldiak



Ilberri: azaroak 8



Ilgora: azaroak 16



Ilbete: azaroak 23



Ilbehera: azaroak 29

Eguzkia

Domeka, urriak 14



Sortu: 08:02



Gorde: 18:00

Temperaturak eta eurria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 4	18	3	-
Eguakitzatza 5	17	4	6
Zapatua 6	13	5	54
Domeka 7	14	8	-
Astelehena 8	13	2	-
Martitzena 9	12	8	-
Eguaztena 10	13	10	1,3

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Aundixa izan

Harritzekoa izan, ironiaz, alderantzikoa adierazi nahiz. *Gogorra izanen sinonimoa.*

- *Aundixa dok pa beti igual izatia.*

- *Aundixa da ba ori be zuri pasau biar izatia.*



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Chernobileko mutanteak

Sei hankako txerria da Kievetik 130 kilometrora dagoen Zhitomir Bioteknologia eta Genetika Institutuko mutante bildumako piezetako bat. Piezak Vyacheslav Kononov ukraniarrarenak dira; genetikan doktore den Vyacheslavek ia ehun giza-fetu eta malformaziodun animaliak eta landareak jaso zituen Chernobileko hondamendi nuklearraren ondoren.

Farmaziak

Eguakitzatza 12:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Zapatua 13:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Domeka 14:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Astelehena 15:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 65

Martitzena 16:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Eguaztena 17:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 45

Eguena 18:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Ogia

Domeka 14: Konde.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak

DYA

943 76 71 57

Gurutze Gorria

943 76 55 76

Larrialdiak

943 46 11 71

Anbulatorioa (txanda)

943 76 24 40

Anbulantzia

943 55 43 52

Udaltzaingoa

943 77 91 06

Ertzaintza

943 76 53 40

Suhiltzaileak

943 78 28 00

Osasun Etxea

943 76 24 40

Arrasateko ospitala

943 03 53 00

Asepeyo

943 76 18 40

Pakea

943 76 13 40

Angiozarko medikua

943 78 90 07

Antzuolako medikua

943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren

943 45 01 77

PESA

902 10 12 74

Taxiak

943 76 18 50

RENFE

943 28 35 94

UDALA

Udaletxea

943 77 91 06

Udal Artxiboa

943 77 91 06

Igerilekuak

943 76 28 00

Kultur Etxea

943 77 91 06

Liburutegia

943 77 91 06

Mizpirualde Egoitza

943 76 18 40

BESTELAKOAK

Epaitegia

943 76 14 40

Erregistroa

943 76 10 00

Jardun

943 76 28 00

Jubilatuena Etxea

943 76 21 40

Postetxea

943 76 25 60

zorion agurrak



Asier Arriola
Azaroaren 13an
6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Inazio.



Josu Diaz
Azaroaren 17an
5 urte. Urte askota-
rako! Mariñe, Alatz
eta Ibon.



Tania Meabe
Azaroaren 17an
9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




Maitane Mujika
Azaroaren 13an
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Amaia Galarraga
Azaroaren 12an
4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Hodei Lenisora
Azaroaren 15ean
13 urte. Urte askota-
rako! Aitzol, ama-
ma, aita eta ama.



Harri Otermin
Azaroaren 16an
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Négama Picos
Azaroaren 17an
18 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak
eta lagunak.



Pedro Narbaiza
Azaroaren 17an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Martin Telleria
Azaroaren 17an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gregorio Plazaola
14an 50 urte. Urte
askotarako karroza
eta pa handi bat!
Etxekoak.



Joseba Sanchez
Azaroaren 13an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ainhoa Aspiazu
Azaroaren 12an
6 urte. Urte askota-
rako eta muxu bat!
Etxekoak.



Edurne Marchena
Azaroaren 15ean
22 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Idoia Herran
Azaroaren 12an
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Gallastegi
Azaroaren 18an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Juan Luis Gallastegi
Azaroaren 13an
25 urte. Urte askota-
rako! Lagunak.

mezak

Santa Marina

Domekak:
11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak:
19:30.

San Pedro

Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalگو

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

Labegaraieta

Domekak: 11:00.
San Lorenzo
Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 10:30.
Eguakitza: 19:00.

Monja Zahar- rrak

Domekak: 19:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.
Zapatuak eta
lanegunak:
11:45.

Antzuola

Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30.


Uzarraga

Domeka: 10:00.

URTEURRENA

Angel Agirre Gonzalez de Durana

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroak 14,
goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Luis Bideluze Barandiaran

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroak 14,
goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Serapia Larrañaga Agirre

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroak 14,
goizeko 11:30etan, Antzuolako
Errukizko Amaren elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

hildakoak

BERGARA

Amalia Flores Andueza
Azaroak 7, 82 urte

jaiotakoak

BERGARA

Nerea Alvite Bergara
Azaroak 3

Datorren asteko alean,
AZAROAREN 19a
eta **AZAROAREN 25a**
bitartekoan
zorion agurrak
argitaratuko ditugu.

ANTZERKIA

► Producciones Imperdibleren **"Un poeta en Nueva York"** zapatuan, 22:30etan, Arriolan.

MUSIKA

► Jam. **Atari Teenage Riot eta Bad F-Line** taldeak gaur, eguakitza, 22:00etan. Bihar, zapatua, **The Business eta Disturbio 77** 22:00etan.

► **Madrileko** Unibertsitate Autonomoko Orkestra eta Abesbatzaren kontzertua bihar, zapatua, 20:00etan San Pedron.

► **EH Sukarra eta Iskanbila** bihar, zapatua, 22:30etan Arrasaten, Roneon.

► **Arriolako Jazz Blues** Jaialdia Elorrioren: gaur, eguakitza, Petti eta Tonky Blues Band, 22:30etan Gaztetxean.

► **Tonky Blues Band** bihar, zapatua, 23:00etan Soralueko Gaztelupe tabernan. "Night time" diskoaren aurkezpena.

ERAKUSKETAK

► **Iker Badies Korkostegi-aren** akuarela erakusketa Kultur Etxean, azaroaren 21era arte.

► **Juan Jose Altunaren** margo erakusketa domekara arte Durangoko Ezkurdi aretoan. Ordutegia: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30.

ANTZERKIA

Dakota

Non: Novedades aretoan

Noiz: Gaur, eguakitza, azaroak 6, 20:00etan

Sarrera: 1.000 pezeta (750 pezeta 26 urtetik beherakoentzat eta langabetuentzat)

Tanttaka Teatroaren "Dakota" antzez-lana ikusteko aukera izango da gaur gauean Novedades aretoan. Jordi Galceran autorea Kataluniako Ignasi Iglesias Saria irabazi zuen 1995. urtean "Dakota"ren jatorrizko testuari esker eta Tanttaka Teatra eta 3XTR3S produktora katalana ditugu antzezlanaren ekoizleak. Tanttaka 1983. urtean sortu zen eta ordutik hamabost produkzio kaleratu ditu, joera ezberdinak landuz: drama naturalistak ("Agur Eire agur"), opera bufa ("Flaminio"), fartsa ("Adagio violentisimo"), dantza ("Zilbor hestea") edota musika ("Kontuz, maite zaitut"). Euskal antzerki-gintzan erreferente nagusienetako bat bilakatu da Tanttaka. Azken urteotan, berriz, arrakasta nabarmena lortu dute "El florido pensil"

eta "Shakaespeare osoa (gutxigorabehera)" lanei esker, biak ere Bergaran antze-tu dituztenak.

Oraingo honetan ametsen munduari buruzko komedia dakarte. *Hipolito* izeneko dentistak, ametsen bitartez, etorkizuneko gertakariak iragartzeko ahalmena duela uste du eta piskanaka-piskanaka ametsak eta errealitatea nahasten hasiko da. Josep Maria Mestresek zuzenduriko lan honetan Joseba Apaolaza, Ramon Agirre, Aizpea Goenaga eta Jose Ramon Sorroiz aktore ezagunak ditugu protagonista nagusiak. Gaztelarazko bertsioak arrakasta handia izan zuen eta iazko ekainean euskarazkoa estreinatu zen Elorrioren, ikusleriaren partetik primerako erantzuna jasoz. Ritxi Lizartza eta Aizpea Goenaga arduratu dira testua euskaratzeaz.



"Dakota"ren euskarazko bertsioa iazko ekainean estreinatu zen Elorrioren.

LEHIAKETAK

► **Komiki ez sexisten lehiaketa**, Donostiako Udaleko Emakumearen bulegoak antolatuta. Epea: azaroaren 26ra arte, bulegoan (Urdaneta 13, 3.a. 20006 Donostia).

IKASTAROAK

► **Memoria tailerra** azaroaren 15etik urtarrilaren 26ra, astelehen eta eguaztenetan 16:00etatik 17:30etara San Joxepe elkartearen Argibideak eta izen ematea: 943 76 21 40.


DEIAK

► **Mariaren Lagundiaren 200. urteurreneko ekitaldiak:** eguaztenean, hilak 17, **Jaume Funes** psikologoa eta Bartzelonako Unibertsitateko irakasleak "Escola 2000. urtea"



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



Amillaga, gasolindegia ondoan. Tf.: 943 76 57 34

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...



ren heziketa erronken aurrean” izenburuko hitzaldia emango du Ikastolako aretoan, 19:00etan. Hilaren 20an, berriz, ikasle ohien, irakasle eta gurasoen **topaketa eguna** ospatu-ko da egun osoz. 943 76 25 40.

► **EHE** taldearen 20. urteurrena: gaur, eguakitza, 19:30etan **Juan Mari Mendizabalen** hitzaldia Kultur Etxean eta gauean, 21:30etan, **bertsolariak eta trikitilariak** alaituta-ko herri afaria Arrasaten, Roneon. Domekan, toki berean, **pailazo emanaldia** 17:00etan.

► **Hitzaldia**: “Situación económica y cierre de la línea del Ferrocarril Vasco-Navarro”. Hitzaria: Iñaki Suso historiagile. Eguaztenean, hilak 17, 19:30etan UNEDeko aretoan.

KINTADAK

► **1953an jaiotakoan afaria** azaroaren 20an Tartufon, 21:30etan. Autobusa 21:00etan aterako da Frontoitik. Izen-ematea (2.000 pezetako aurrerapena) Kiñun eta Frontoian.

► **1959an jaiotakoan afaria** azaroaren 20an Antxonin jate-txean. Izen-ematea bertan.

► **1939an jaiotakoan eguna** azaroaren 20an. 19:00etan meza Santa Marinar eta 21:00etan afaria Pertxa elkar-txean. Izen-ematea: 943 76 24 79 (Eulalia Elgarresta), 943 76 28 58 (Pello Garitano), edo 943 76 23 94 (Pedro Egaña).

► **1972an jaiotakoan** bazkaria azaroaren 20an. Izen-ematea Eusebio II tabernan (1.000 pezetako aurrerapena) hilaren 17ra arte.

► **1934an jaiotakoan** eguna azaroaren 21an. Ordubatean meza Santa Marinar eta 14:45etan bazkaria Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) bertan.

► **1946an jaiotakoan afaria** azaroaren 27an Tartufon. Izen-ematea bertan.

► **1943an jaiotakoan afaria** azaroaren 27an Antxonin, 21:00etan. Izen ematea Maher (943 76 22 90) edo Tejidos Fernandez (943 76 53 22) dendetan hilaren 25era arte.

► **1957an jaiotakoan afaria** azaroaren 27an Torrekua erretegian. Izen-ematea Intxortan.

► **1980an jaiotakoan** bazkaria azaroaren 27an Zabala jate-txean. Izen-ematea hilaren 20a baino lehen Zabalan bertan.

► **1944an jaiotakoan afaria** azaroaren 27an Azpeitxi jate-txean. 19:00etan, meza Santa Marinar. Izen-ematea hilaren 22a baino lehen: 943 76 23 70 (Sanchez ileapaindegia) edo 943 76 42 42 (Jesus Aperribai).

► **1927an jaiotakoan** eguna azaroaren 28an. Santa Marinar meza 13:00etan eta 14:30etan bazkaria Antxonin. Izen-ematea bertan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades The haunting (La guarida)

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

La vida soñada de los angeles

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema Cruelles intenciones

Eguakitza: 22:00.

El sueño de una noche de verano

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Amaia Estacion Central de Brasil

Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga Novia a la fuga

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztenean, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto El club de la lucha

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana Beldurrezko zine maratonia

Zapatua: 22:00.

Celos

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

Mama es bobá

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ELORRIO. Arriola Locos en Alabama

Zapatua: 20:00.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Little voice

Eguena, zine-kluba: 20:15.

LA GUARIDA

Zuzendaria: Jan De Bont.

Aktoreak: Liam Neeson, Catherine Zeta-Jones, Owen Wilson. ≥ 13 URTE

Hugh Crain baroia zenaren etxe zahar eta dotoreak heriotzari eta ezbeharrei buruzko kondaira misterioitsuak eragin ditu. Etxea hutsik ei dago, edo hala dirudi behintzat. Bertara joango den lagun batek, *Marrow* doktorearen (Liam Neeson) eskutik, duela 130 urte baroiairen bi emazteek bizi izandako amesgaiztoak deskubritu ahal izango dituzte...

LA VIDA SOÑADA DE LOS ANGELES

Zuzendaria: Erick Zonca.

Aktoreak: Elodie Bouchez, Natacha Regnier. ≥ 18 URTE

Hiriz hiri dabilen *Isa* gaztea (Elodie Bouchez) *Marie* (Natacha Regnier) bere adineko neska bat ezagutuko du Lilien. Berehala lagunminak izango dira, bizitzaren aurrean ikuspegi ezberdinak izan arren... Bi aktoresek interpretazio saria jaso zuten iazko Canneseko Jaian. Erick Zonca zuzendariaren hitzetan, “emozioa da transmititu nahi dudana, ez zait interesatzen gizarteari buruzko egia azaltzea”.



BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Azken 23 urteak Aranzadi Ikastolan eman ondoren, Iñazio Arregi (48 urte) Partaide ikastolen elkartearen hasi zen lanean joan zen uztailen. Aranzadiko zuzendari ohiak Ikastolan momentu onak eta ez hain onak ezagutu dituela dio baina orokorrean balantze positiboa egiten du. Orain erronka profesional berri bati aurre egingo dio Partaiden.

G. Zein da Partaiden duzun zeregina?

E. Askotan pentsatzen dugu ikastolen federazioek edo Partaidek duten eginkizun bakarria ikastolak ordezkatzea edo Kilometroak antolatzea besterik ez dela. Horrez aparte, beste hainbat ekimen egin dituzte, beste ikastetxe batzuk bereganatu dituztenak. Euskal irakas-kuntzan dauden testu-liburu eta metodori osatuenak ikastolek sortu dituzte. Horrek profesional askoren lana eskatzen du, hezkuntza sisteman berrikuntza gehiago ezarri ahal izateko. Sor-kuntza lanaz aparte, barruko langintza hori kudeatu beharra dago. Arlo enpresarialean lan egiteko gustoko eskaintza egin zidaten eta hor ari naiz.


G. Zenbat ikastola eta zein modelokoak daude Partaiden?

E. Partaiden diren ikastola guztiak kontzertatuak dira, guztira Euskal Autonomi Elkargoko 57 ikastetxe. Nafarroakoak eta Seaskakoak, berriz, gurekin batera Ikastolen Konfederazioan daude. Nahiko konplikatuak da, ikastola publikoetako guraso elkarteak ere probintzietako federazioetan daudelako, ikastetxe publikoek ez dutelako pertsonalitate juridikorik federazio-ko bazkide izateko. Gure

IÑAZIO ARREGI

Partaide-ko arlo enpresarialaren zuzendaria

“Gaur, gizartean ikastolek egindako lanarekiko badago errekonozimendua”



Iñazio Arregi Aranzadi Ikastolako zuzendaria izan da hogeitaz urtez.

ARTXIBOA

helburuetako bat panorama guzti hori sinplifikatzea da, langintza inportanteenak Partaideren esku uzteko.

G. Zeintzuk dira erronka nagusiak?

E. Ikastolen mugimendua bultzatzen jarraitu, euskaldun ikuspegitik egindako irakaskuntza indartu eta horretarako beharrezkoak diren bitartekoak jarri, iker-

“Publifikazio legearekin, eraso gogorak izan ziren ikastolen kontra. Gaur, bestelako giro soziala sortzen ari dela ikusten da”

kuntzaren bidez *software-ak*, liburuak eta materialak sortu eta profesionalak ahalik eta hobekien prestatzeko. Era berean, ikaspileta, bertsolaritza eta horrelako proiektuekin jarraituko dugu, ahal den neurrian zabalduz. 2005 urte bitarterako plan estrategikoa ere egin nahi dugu.

G. Zela ikusten duzu Aranzadi Ikastola gaur?

E. Urte zailenak igaro direla uste dut. 1993an, publikazio legearekin, gaizki ulertu batzuegatik edo kontseilari baten intransigentziarengatik sasoi txarrak iritsi ziren. Eraso gogorak izan ziren ikastolen kontra eta demokratikoki erabaki jakin bat hartu zelako, aurretik ikastola defenditzen zuen jendeak ere bestelako jarrera azaldu zuen. Gaur egun, berriz, gizartean, ikastolek egindako lanarekiko errekonozimendua bat dagoela somatzen dut. Beste sentsibilitate bat eta beste giro sozial bat sortzen ari dela ikusten da. Aranzadin ahal zen moduan aurrera egitea ere tokatu zitzaigun, laguntza askorik ez dugu izan (udaletxetik hasita) baina gaur egun Aranzadik etorkizun ona duela uste dut.

G. Gaur herrian diren ikastetxe guztiak tokia izango da etorkizunean?

E. Zaila da hori jakitea. Bergaran hezkuntza modelo ezberdinak daude. Ikastetxe guztietan D ereduan irakasten ei da baina denak ez dira eredu berdina, ezta urrik ere. Eredu batek joera erlijiosoak du, beste bat gizariteak antolatutako ereduak da eta hirugarrena administrazioaren eredu publikoa. Beti egongo dira modelu bateko ala beste zaleak eta horren arabera tamainuak egokitu beharko dira, besterik ez.

Deba Bailaran tranbia jartzeko proiektua aztertzen ari da Jaurlaritza

Alvaro Amman garraio sailburua bailarako alkateekin bildu da

Eusko Jaurlaritzako garraio saila Deba bailaran tranbia jartzeko proiektua aztertzen ari da eta datorren urtean proiektu hori bideragarria den ala ez aztertze-ko ikerketa lan bat egingo du.



Jaurlaritzaren egitasmoaren arabera, tranbia eta bidegorria egingo lirateke.

Joan zen urriaren 29an Deba bailarako alkate guztien bilera izan zen Aramaion, Alvaro Amman Eusko Jaurlaritzako garraio sailburuak deituta. Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak ezin izan zuen bertan izan eta Koldo Pereira izan zen herriko ordezkaria aipatutako bileran. Alvaro Ammanek Eskoriatzatik Debara bitartean tranbia jartzeko proposamena egin zien bertaratupei eta udal ordezkari-ekin begi onez ikusi zuten asmoa.

Hasiera batean Debarra zeharkatuko luke tranbiak, Eskoriatzatik Debara bitartean hain zuzen ere. Tranbia, nagusiki, hiri ere-

muetan erabili izan da nagusiki orain arte.

Victoriano Gallastegi Mankomunitateko presidentek tranbiaren gaia oraindik ez dutela behar bezala aztertu eta, oraingoz behintzat, Jaurlaritzaren asmo bat besterik ez dela

adierazi digu; "ideiak harre-ra ona izan zuen Deba bailarako alkateen partetik baina ikusi beharko da aurrera doan ala ez. Hasiera batean ondo legoke gure bailaran dagoen autoen trafikoa arintzeko. Tranbia soluzio ona izan daiteke herri arte-

ko komunikazioa hobetze-ko, gaur egun dagoen eskaintza bakarrak, autobuse-nak, zerbitzu ona ematen ez duela frogatu delako".

Mankomunitateak bailarako garraio premiak aztertze-ko lan bat agindu dio enpresa bati. Victoriano hitzetan, "lehenbizi zer nolako beharrak dauden aztertu nahi dugu, gero soluzio-ak topatzen hasteko".

1968an Maltzaga-Gasteiz trenbidea kendu zuten eta tranbia jartzeko trenbidearen berpiztea ekarriko luke. Hala ere, tranbiak lehen-ko burdinbidearen lurretan jartzekotan zen bidegorriarekin topo egingo luke. Hala ere, Alvaro Ammanen arabera bi proiektuak egingo lirateke. Antton Jaime garraio diputatuak ere berretsi egin zuen duela gutxi Debarra zeharkatuko lukeen bidegorria egingo zela. Ibilbideko zatirik handienez elkarren ondoan joango lirateke trenbideko burdinbidea eta bidegorria.

Bergarar gazte bat larri zauritua San Juanen auto istripuan

J.L.A.O. 25 urteko bergarar gazteak kotxe istripu larria izan zuen joan zen eguakitzean. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, eguerdiko ordubatean, Elgetatik Bergarara bidetako zatorrela, kaltetatutako iten eta poste baten kontra

jo ondoren, gidatzen zuen Peugeot 306 kotxea irauli egin zen TTT enpresaren pareko kurban.

Ondorioz, J.L.A.O.k zauri larriak jasan zituen eta Donostiako Erresidentzian ezker besoa anputatu behar izan zioten.

Gizonezko antzuolar bat larri bere buruari tiro egin ostean

A.I.A. 45 urteko antzuolarrak zauri larriak jasan zituen astelehen goizean, ustez eskopeta batekin bere buruari tiro egin ondoren. Goizeko zazpiak aldera kotxe istripua izan zuen Antzuola inguruan baina bertaratu-ko asistentziek ez zu-

ten gidaria aurkitu. Emandako informazioaren arabera, A.I.A. bere kabuz bere baserrira itzuli eta bere buruari tiro egin zion. Arrasateko eritexera eramandoren, zauritua Donostiako Arantzazu ospitalera eramanda zuten.

Sindikatuak Raul Luqueren aldeko ekimen berria aurkeztu dute

Udalean fondo bat eratzea eskatu dute Raul Luqueren lagunek

Pazkuetan larriki zauritua gertatu zen Raul Luque bergarar gaztearen lagunek eta ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK eta EHNE sindikatuetakako ordezkariak Luqueren aldeko ekimen berria aurkeztu zuten joan zen eguakitzean.

Herriko langile guztiek Raulen alde ordubeteko lan saria ematea proposatu zuten, gaztearen familiak Aita Menniko egonaldiaren gastuei aurre egin ahal izateko. Hilabeteko gastuak milioi bat pezeta ingurukoak dira. Raulen lagunek prentsaurrean adierazi zuten, "ekimen honekin bat egitea borondatezkoa izango da. Langileen artean orri batzuk banatuko ditugu eta interesatuek abenduaren 15a baino lehen sinatu beharko dituzte. Ordubeteko lan saria abenduko nominatik deskontatuko litzateke, nomina extra egotean hilabeterik aproposena iruditu zitzaigulako. Enpresariei, euren langileek bezain beste ematea eskatuko diegu".

Bestalde, profesional zein autonomoentzat kontu korronteak zabalik daude Euskadiko Kutxan, BBVN, Central Hispanon, Kutxan, Banco de Santanderren, Caixan eta Banco Guipuzcoanon. "Guztion partetik erantzun positiboa jasotzea espero dugu" adierazi zuten Luqueren lagunek. Era berean, gizarte segurantzaren egoera salatu zuten, "Raul



Sindikatuetakako ordezkariak eta Raul Luqueren lagunak joan zen eguakitzeko prentsaurrekoan.

bezalako gaisoak erreabilitatzeko gutxienezko baldintzak ez eskaintzeagatik" eta Udalari honelako kasuak atenditzeko fondo baten sorrera proposatu zioten, "errekurtsoak ez dituen edonor bertan behera gera ez dadin eta zoritxarren bat gertatzen den bakoitzean kalera irten beharrean ez egoteko. Badakigu ez dela lan erreza baina herriko politikoei euren herritarrekin erantzunkizuna daukate". Dirua sobran geratuko balitz, fondo horretara zuzenduko litzateke.

Oraindik ezin da jakin Luquek zenbat denbora eman beharko duen Arrasateko Aita Menni eritetxean. Asteazkenean bertan Pepi Couñago Raulen amak adierazi zigunez, "Aita Mennin ingresatu genuenetik hona hobera egin du. Jendea ezagutu arren, oraindik ere hitz gutxi batzuk esateko gauza da bakarrik. Buruko lesioen erruz, eskuineko alde da afektatuen duena baina hasi da ezker besoarekin jaten edo haginak garbitzen. Prozesua geldo doa eta medikuek oraindik ez digute

esan zer nolako arrastoak geratuko zaizkion". Bergarako herriak azaldutako jarreraren aurrean zera esan zigun; "ez daukat hitzik egiten ari den guztia eskertzeko, bai Raulengatik eta bai gugatik ere. Jende guztiak laguntza eskaini digu orain arte eta eskertzea ezinezkoa da".

Amaitzeko, esan dezagun, Udazken Kulturaleko programazioaren barruan abenduaren 3rako Udal Pilotalekuan iragarrita dagoen Musika Eskolako emanaldian batzen den dirua Raul Luqueren alde izango dela. Azken urteotan, aipatutako kontzertua doanekoa izango da, baina Raul Luqueren alde dirua batzearen, sarrerak 500 pezetan jarriko dira salgai aurten.

Eskuineko alde da Raul Luquek kaskarren duena, baina hasi da ezker besoarekin jaten edo haginak garbitzen

Pleno aretoa jendez gainzka zegoela eta bestetan baino komunikabideetako ordezkari gehiago bertan zirela, alderdi abertzaleek bat egin zuten Bergarara Plataformak Jose Mari Etxaniz eta Eukene Gracia herriko presoen alde aurkeztutako mozioetan, zapatuan egindako ezohiko batzarrean.

Alderdi abertzaleak bat Etxaniz eta Graciaren aldeko mozioetan



Begarara Plataformako kideak manifestazioaren buruan. Aurretik, ez ohiko batzarra egin zuen Udalbatzak.

Kontxi Ugalde idazkariak Plataformak aurkeztutako bi mozioak irakurri zituen. Bietan bi presoen egoeraren berri ematen zen: Etxanizek 19 urte eta zazpi hilabete daramatza kartzelan eta zigorraren hiru laurdenak 1995eko otsailen bete zituela esaten zen. Graciak, berriz, aurtengo otsailen bete zituen kondena- ren hiru laurdenak mozioaren arabera. Bi presoek askatasuna eskatuz Jaime Mayor Oreja barne ministroari eta Institutio Penitentiario- etako zuzendaria den Yuste jaunari Udalak idatzi bana bidaltzea eta Jaurlaritzako Giza Eskubideen batzordeko presidenteari emandako urratsen berri ematea eta bi presoek askatasuna lortu dezala eskatzea onartu zen Plenoan, EA-EAJ eta EHko zinegotzien aldeko botoekin.

Alkateak jakinarazi zue- nez, Luis Martinez PPko zinegotziak idatzi bat bidali zion, Plenora joaterik ez zuela esanez; Alvaro-Espar- za PSE-EE alderdiko orde- z-

karia ez zen batzarrean izan eta Jose Antonio Etxeberriak (EAJ-EA) ez zuen botoa ematerik izan berandu heldu zelako. Botazioaren ondoren, Mainer Larrañaga EHko zinegotziak hartu zuen hitza; "gose greban diren presoekiko elkartasuna adierazi nahi dugu eta ezin dugu ahaztu Mikel Zubimendi bergararra ere gose greban parte hartzen ari dela. Bestalde, presoekiko eskubide bortxaketa etengabea salatu nahi dugu eta us- te dugu gaurko moduko el- karren arteko lana euskal preso eta errefuxiatuen one- rako ezinbestekoa dela".

Plenoaren ostean, mani- festazio jendetsua burutu zen, isilean, herriko kale- tan. Buruan, Plataformako bost kide "Askatu" zioen pankarta eusten. Hainbat al- derdi, sindikatu eta elkarte-

euren atxekimendua azaldu zuten zapatuko ekitaldietan. Bestalde, gose greban diren euskal presoekiko elkarta- suna adierazteko, lau lagun zintzilikatu ziren Udaletxe- ko balkoietatik.



Ortzadar

Kortsetegia, mihisedenda, pijamak eta osagarriak

Bisita gaitzazue datozen egunotan eta Ionek **OPARIA** emango dizue!

Gaurtik aurrera zuen zerbitzura!

Ibargarai 8. 943 76 54 73. LEHEN YAZKI GAZTE ZEGOEN TOKIAN!

Berrigara

387 zenbakia.
1999ko azaroaren 12a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkartea

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Tere Madinabeitia, Aintzane Irizar.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetz: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien, Maripí Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkorobereizbar, Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia:
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara/Benito Cantero.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

GOSE GREBA MUGAGABEA

Espainiar eta frantses estatuek, historikoki indarrez inposatu digute euskaldunoi beraien borondatea. Euskal Herriaren burujabetza oztopatu eta ukatzeaz gain, euskaldunoi gerra egitera etorri ziren eta horretan dihardute egun ere, bai Guardia Civil, CRS, Polizia Nazionalea eta Gendarmeak.

Geroztik espainiar eta frantses estatuek, euskaldunoi inposatutako gatazka politikoa ondoz ondoz zuzenak dira euskal preso eta exiliatu politikoa, Euskal Herriaren nortasun eta eskubideak defendatzeko armaz ere borrokatzen behartuak izan direnak.

Orain, gatazkari irtenbide politikoa eta demokratikoa emateko derrigorrezkoa da euskaldun guztien zuzeneko parteartze askea ziurtatzea, beraz baita euskal preso eta exiliatu politikoa ere.

Euskal presoen kolektiboa etengabeko borrokan dihardu urte askotan eta orain beste urrats bat eman berro du duela egun batzu. Euskal Herriaren kokaturiko kartzeletan eta estatu frantziarreko Fleury Merogis eta La Santen espetxeratu dauden hogeitase presok hasi dute gose greba mugagabe bat, be-

raien artean Mikel Zubimendi bergararra dugularik.

Beraiek borrokarako oinarri gisa plazaratutako aldarrikapenak bost puntu ditu: euskal preso politiko guztien kaleratzea, Euskal Herriaren eraikuntza prozesuan parte hartzeko; bestetik, euskal preso politiko guztien euskalerriratzea; hirugarrenik, arrazoi ezberdinengatik gaixorik dauden preso guztien kaleratzea eta, azkenik, baldintzapeko askatasunaren epeetan direnen kaleratzea eta entrega eta estradizioak amaitzea eta Euskal Herrian bizitzeko eskubidea aipatzen da. Eta aldarrikapen hauek lortu arte borrokan jarrituko dutela ziurtatu dute, eta borroka hori gurea ere badelako.

Bergarako Amnistiaren Aldeko Komitea

ESKERRIK ASKO

Eskerrik asko joan zen zapatuan, hilak 6, Jose Mari Etxaniz eta Eukene Graciaren alde egin ziren ekintzetan parte hartu zenuten guztioi, bereziki, presoekiko solidarioei eta deialuzatu eta laguntza eskaini zeninguten guztioi.

Bergarar Plataforma eta Presoen Senideak

UDALAK GAZTEEKIKO JARRERA EZKORRA

Udalak oraingoan ere gazteoi muzin egin digu. Badira 5 hilabete gazte lokalaren proiektua aurkeztu genielara, eta euren orduko sentsibilizazioak eta ardurak airean gelditu dira berriz ere. Garai hartan, hau eztabaidatzeko bilerak egingo zirela baieztatu ziguten eta berriko udalak ohiko duenez gazteok dugun arazo hau ahazterazten, izkututzen eta baztertzen jardun du gaur arte, eta zoritxarrez hau da Victoriano Bergarako alkateak 6 urteotan Gazteekiko azaldu duen jarreraren islada (hil honen 15ean sei urte beteko dira gazteok itxi zenetik).

Gazteok nazkatuta gaude Udalak gurekiko azalduko jarrierarekin, guk gazteon aistaldia, ezin egonak, ekintzak, beteko dituen gune autogestio-natu bat aldarrikatzen dugun an soilik. Udalak badu hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia. Gazteon eta herriaren hitza errespetatu behar du; bestela, gazteok dugun irtenbide bakarra, okupazioa?

Gazte Lokalaren aldeko mugimendua

tira biraka: usoa mendikute



■ atrebentzia ezpada

Bergaran arazuak dare etxiak lortzeko. Zer egin leike hori konpontzeko?



Mari Karmen Segovia

Jendiak nahixago dau etxiak itxita edukitzia alokatzia baino. Merke alokatu ezkeru, jendiak konponduko litzuzke.



Maria Jesus Lopez

Oso karuak die. Berria erosteko lehendik daukazuna saldu bihar dozu; eta hala be larri.



Aitor Zabaleta

Udaletxiak laguntzak eman biharko litzuzke etxiak erosteko, baita alokatzeko be, honek be garesti darelako.



Unai Azkarate

Nekeza da daren prezioekin gaztiak etxetik ateratzia. Irtenbidia alokatzia da, baina hau be garestia danez, okupazioa.



Inma Gallastegi

Udalak etxebizitza sozialak alkilerrian jartzia da soluziñua, baita erosteko laguntzak emotia eta hutsik darenekin zeozer egittia be.



Iñigo Unamuno

Gobernuaren subentzioak behar die edo bestela Udaletxiak lurra merke lortzia etxe merkiak egitteko, Antzuolan egin dan bezela.

■ bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

ARGIEN PREMIA KIROLDEGIKO BIDEAN

A. Garitanoren mezuja jaso dugu aste honetan. A. Garitano Labegaraietan bizi da eta ia egunero Labegaraieta eta herri-gunearen arteko tartea oinez egiten du, trenbide zaharretik. Garitanok bidean argiak jartzeko beharra ikusten du, neguko ordutegiarekin arratsaldeko 18:30ak ingururako erabat ilun egoten baita autobus geltokiaren eta kiroldegiaren bitarteko kamiñua. Kontuan izanik leku horretan jende asko ibiltzen dela eta herriko korrikalariak ere urtean zehar hortxe ibiltzen direla, Udalarri zerbait egiteko eskatu nahi lioke. Garitanoren ustez, gai honek lehentasuna izan beharko luke beste batzuren aurrean.

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
Tf. 943 76 59 54 BERGARA

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

AGOITZ

Tapizdenda

Leizariako San Lorenzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47

Biko
BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

KONDE



Burdinate 1
Tf. 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Psoriasiaren gaineke aholkuak

Aurreko batean aipatu genuen moduan, psoriasia gaisotasun kronikoa da eta bere jatorria ez da ezagutzen. Azaleko gaisotasun ohizkoenetakoa da eta biztanlegoaren %1-3 bitarteari afektatzen dio. Gaisotasun asintomatikoa da, ez du hazkurarik sortzen eta arazo estetikoa da nagusi, azalean ez-kata zuriz osatutako plaka gorriskak agertzen direlako, gehienetan buruazalean, ilean, belaunetan, ukalondoetan edota atzazkaletan. Kasuen %40an estresaren eraginez sortzen da eta frogatuta dago eguzkiak hobetu egiten duela gaisotasuna. Psoriasi motaren arabera, medikuak zehaztuko du jarraitu beharreko tratamendua.

Hala ere, hainbat aholku ematea beharrezkoa da: kolore gorriskako azaleko lesio guztiak ez dira psoriasia eta zalantzaren bat izatekotan dermatologoarengana joatea gomendatzen da. Bestalde, psoriasia dutenek bizitza kali-



CRISTINA GARCIAÑDIA

Dermatólogoa

"Psoriasia dutenek bizitza kalitate ona izan dezakete. Gizarte kontzientzia zioa behar da gaisotasunari aurre egiteko"

tate ona eraman dezakete eta psoriasiari aurre egiteko metodorik onena informazioa eta gaisotasunaren aurrean gizarte kontzientzia zioa dira.

Era berean, ikerkuntzan ematen ari diren aurrerapausuek gero eta gehiago hurbiltzen gaituzte betiko osatzeko tratamendua topatzera. Beharrezkoa da psoriasia dutenek aldian behin osasun kontrolak egitea, medikuak tratamenduaren komenigarritasunaz erabakitzeke.

Bestalde, psoriasia ez da sortzen higie faltagatik. Dena den, higie egoki bat eramatea funtsezkoa da, azala psoriasiaren agerpena bultzatuko lukete beste infekzio batzuringatik erasotua ez izateko. Xaboi suabeak erabiltzea komeni da eta ur bainuak uste baino aproposagoak dira, azala erlaxatzeaz gain, estresa eta tentsioa gutxitzen dutelako. Azala ondo hidradatuta egotea lagungarria izango da beti.<



Plaka gorriskak buruan, ukalondoetan edo oinetan ager daitezke.

LABANGILEEN KOFRADIA Imanol Sorondo

Labangileen Kofradiako lehenengo araudiak 1535ekoak ziren.

baina ez daukagu orduko zehaztasun gehiegi. Reglamente berriak 1604.ean egin dituzte eta oraingoaren izena Bergarako Labangileen eta Guraizegileen Kofradia eta Anadia ipini diote. Batzarrak Magdalena Hospitaleko gela nagusian egiten dituzte; bertako elizan daukate bere zaindaria ere, San Matias. Urte horietako batzar batera 45 ofiziodun maisu joan dira. Geroxeago, labanekin eta guraizeekin batera burnizko beste zenbait lan ere egiten dituzte, sarrailek adibidez. Otsailaren 24an, San Matiasen egunean, urtero elkartzen dira alkatearen eta isribauaren aurrean Kofradiako liburua erakustera, kontuak ematera, eta 8 aztertzaile izendatzera. Horretarako ofizial maisu guztien izenak txapel batean ipintzen dituzte, 4 arduradun zozketan aukeratzeko; gero, horiek izendatzen dituzte 8 aztertzaileak.

Reglamenteak irakurtzerakoan, ustekabeen harrapatua sentitzen zara, lanaren "kalitateari" ematen zioten garrantzi handiarekin, kontuan harturik araudi asko horretara zuzenduta zeudela, eta batzartuak beraien buruak ipintzen zituztela isunen zamapean. Hori zen bere asmo garrantzitsuenetako bat: "Kalitatea". Ofizial maisuek astero, larunbatean, aztertzaileengana eraman behar zituzten egindako lanak, kalitate baimena jasotzeko. Jakina zen, pieza bukatutakoan, zailagoa zela erabilitako materialak onak ziren edo burnia ondo landu zuten aztertzea. Horrela, aztertzaileek baimena zuten dena hasieratik begiratzeko: materialak, galdak, landuketak eta abar. Maisuak galerazita zeukaten bi ikasle baino gehiago edukitzea piezak ondo bukatzeko.

Araudien beste sail handi batek elizkizunei eta elkarteari begiratzeko zioen: mezak eta hileta erritoak, batez ere.<



Informazioa 943 765920

Zure heziketa zentrua

Zuretzat egokitutako hiru ikasgela
Arlo ezberdinetan aditua den irakasleoa
Ordenagailu bat pertsonako eta irasle bat gelako

MATRIKULA EPEA IREKIA

Multimedia eta animazioa

Photoshop

Internet

Word

Excel

Acces

Powerpoint

Windows 98, NT

INFOGRAFIA

Modelatua, animazioa, materialen ezarpena, iluminazioa, efektuak,...

Industrial diseinua

Aurkezpen interaktiboak

Aplikazio anitzak, arkitektura,
interiorismoa, industrial diseinua,
eszenategi birtualak



KOSMETIKO BAT
 EROSTEAGATIK
 KOLOREA
 OPARI:
 EZPAIN-BARRA
 EDO BEGIETARAKO
 BRILLOA



Ibargarai 10. 943 76 00 85



*Txuringo
 Jatetxea*



- ~Menua eta karta
- ~Ezkontzak
- ~Jaunartzeak
- ~Txerrikumea, bildotsa,
 baserriko oilaskoa labean erreta...

OSINTXU. Tf. 943 76 48 63



Txirrinduzaleen afaria

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Bergarako txirrinduzale talde batek denboraldi amaierako afaria egin zuen Elorregiko Alkartasuna elkarte-an. Guztira, 28 lagun izan ziren giro ezinhobean aflatzen, tartean Euskalteleko **Ramon Gonzalez Arrieta eta Roberto Laiseka**, Banestoko **Jon Odriozola, Juan Manuel Garate** (azken bi urteetan Gorlan garaile izan dena eta Lampren korrituko duena), **Santi Aiastui** antzuolar profesional ohia eta Iberdrola taldeko **Unamuno** bergararra. Guztiak oroigarri bana jaso zuten afalostean eta, bere ezkontzaren bezperatan, Ramontxuri opari berezia egin zioten herriko txirrinduzaleek. Jarraitzaile finak eta detailezaleak hauek... *Allez, allez!!*



Behoko estaziñuaren alde

Kapirixo eta Euskal Herriko trenaren lagunen hainbat elkarteren ekimenez, ibilbide polita izan zen domeka goizean, **Behoko Estaziñua ez dadila bota** eskatuz. Goizeko 11:00ak aldean plazatik irten eta garai batean trenbidea izan zen pasealekuan zehar egin zen ibilbidearen zatirik handiena, 13:00ean Behoko estaziñuan amaitzeko. Bertan, trenaren inguruko **aintzinako argazki erakusketa** ikusteko parada izan zuten hurbildu zirenek.

Neska-mutiko asko mendi-irteeran

Joan zen domekan eman zitzaion hasiera **gaztetxo-entzat Pol-Pol elkarteak** antolatzen duen mendi-irteera denboraldiari. Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, **120 neska-mutiko** izan ziren eta gustora ibili ziren, gainera, argazkian ikus daitekeen moduan. Arantzazutik irten eta Urbia eta Biozkorniatik pasa ondoren, busti-busti eginda iritsi ziren Udanara. Urtero bezala, kurtso guztian zehar burutuko dira gaztetxoentzako mendi-irteera hauek, Pol-Pol Mendizale Elkarteak antolatuta. Hurrengoa, azaroaren 21ean izango da, eta oraindik zehaztu gabe dagoen arren, Zumaia eta Zarautz inguruko mendietara abiatuko dira seguraski.



Bigarren estazio metereologikoa Bergaran

Elosuko datuekin San Juan auzoan jasotakoak osatuko dira

Hemendik aurrera ez dugu Bergaran eguraldiarekin zerikusia duen daturik falta izango. Lehen, Luis Mari Agirrek jasotako datuei esker, San Juan auzoko euri-prezipitazioen kantitatea eta temperatura jakiteko modua bagenuen, orain, martxan jarri berri den estazio metereologikoa arduratzen den Jose Antonio Azkarateri esker, Elosukoak ere ezagutzeko aukera izango dugu.

Bi estazio metereologiko ditugu Bergaran azaroaren 1etik. Egun horretan jarri zuen martxan Elosukoa Jose Antonio Azkaratek Metereologia Institutu Nazionalaren laguntzaz. Belatz kantinarene ondoan dago, 682 metroko altueran eta 1983tik Luis Mari Agirreraren ardurapean dagoen estazioa baino aurreratuagoa eta berriagoa da. Bi lagun hauek ezer kobratu gabe egiten dute datu-bilketa hau, gustokoa dutelako.

Bi urte baino gehiago behar izan ditu Jose Antoniok Elosuko estazio berri hau martxan jartzeko. Belatz kantinarene ardura hartu zuenean bururatu zitzaion ideia eta ez du etsi lortu arte.

Eusko Jaurlaritzara jo zuen lehengo, metereologia-kontuetan eskumena duten erakundeetara. Hauek ondo ikusi zuten asmoa, baina hobeto iruditu zitzaizen Itxumendiko antenaren ondoan jartzea, estazio automatikoa gainera, osatua goa. Baina arazoak sortu ziren antenarekin eta azkenik bertan behera geratu zen guztia. Jose Antoniok, orduan, Donostian Metereologia Institutu Nazionalak duen zentrorra deitu zuen eta hauek berehala erantzun zioten, baita estazioa instalatu ere. Gipuzkoan zehar dauden estazio metereologikoen ardura darman Benito Vargasen laguntza izan du batik bat horretan.

EGURALDIA IRAGARTZEA AMETS

Beti gustatu izan zaio metereologia Jose Antoniok, baita eguraldi kontuak



ere. Baina Elosun egunero, goizeko 9:00etan neguan eta 10:00etan udan, egiten duen datu-bilketak ez du bereztat aparteko interes zientifikorik momentuz. Interesgarria iruditu zitzaion Gipuzkoan errepide bat pasatzen den

puntu altueneko datu metereologikoa ezagutzeko eta datu horien erabilgarritasuna ere kontuan hartu zuen, baita lanaren erraztasuna ere.

Egun bateko gehienezko eta gutxienezko temperatura, euri-kantitatea, baporazioa eta hezetasuna neurtzeaz gain, hainbat fenomeno atmosferiko ere behatu behar ditu, hala nola, elurra, ekaitzak, lainoa, izotz zuria, ihintza eta txingorra. Datu guzti hauek txartel berezi batzuetan apuntatu eta Donostiako Metereologia Zentrorra bidali behar ditu hilaren azkenean.

Egunero egunero, ordu zehatz batean egin beharreko lana da, baina gustora egiten duena. Haruntzago joateko asmoa dauka eta estazio metereologiko handiagoekin satelite bidez konektatutako ordenadore bat jarri nahi du. Guzti horrekin bere ametsa beteko litzateke: egunen batean eguraldi-iragarpenak egiteko gai izatea.

SAN JUANGO ESTAZIOA

Baina ez da Elosukoa Bergaran dagoen estazio bakarra, San Juan auzoan badakiko beste bat, Narbaitza-Bolu base-rrian, 1994. urtetik, hain zuzen ere eta 174 metroko altueran.

Elosun, temperatura, euria, baporazioa eta hezetasuna neurtzeaz gain, elurra, ekaitzak, lainoa, izotza, ihintza eta txingorra ere behatu behar dira

Zer da estazio meteorologikoa?

Elosun martxan jarri den estazio meteorologikoa Gipuzkoako bigarren mailako estazioen sarean kokatzen da beste 20 bat estazioekin batera. Horietan ere egun bakoitzeko gehieneko eta gutxieneko tenperatura eta prezipitazioa neurtzen dira.

Egunean behin begiratzen dira datuak termometroan eta pluviometroan. Termometroak airearen tenperatura neurtzen du eta, horregatik, nazioartemailako baldintzak betetz, kaseta meteorologikoa deitzen den txabola baten barruan egoten da, eguzkiak zuzenean jotzen ez duen toki batean. Pluviometroak euria neurtzen du, metro karratuko litrotan. Neurri zehatzak dituen pote haten antzeko ontzian jasotzen da ura eta gero, probeta berezi batean ikusten da zenbat euri egin duen.

Jasotako datuekin txartel batzuk bete eta hilean behin Donostiara, In-txaurren Metereologia Instituto Nazionalak duen zentrorra bidaltzen dira. Bertan datuak erregistratu, iragazi eta informatizatu egiten dira eta estatu osoko datu-basea osatzera pasatzen dira. Gero, Munduko Erakunde Meteorologikoa eskatzen dituen 30 urteroko estatistikak osatzeko edo klima-aldaketa bezalako fenomenoak ikertzeko erabiltzen dira.

Estazioen kokapenak ez du irizpide zehatzik jarraitzen, baina Gipuzkoaren kasuan, lurralde osoan homogeneouski banatuta daude: batzuk mendi-puntetan, beste batzuk bailaretan, edo euri asko egiten duen tokietan eta lehorragoak diren beste batzuetan. Horrekin, ezaugarri ezberdinak dituzten ia zonalde guztietako datuak eskuratzea lor-tzen da.

Estazio bat eraikitzeko beste irizpide bat bertako datuak jasotzeaz arduratuko den norbait bilatzea da. Izan ere, estazio meteorologiko hauetako arduradunek musutruk egiten dute lan hori, urte amaieran sari txiki bat jasoz. Baina gastu guztiak Metereologia Instituto Nazionalak ordaintzen ditu eta mantenimendua bere kontura da.



Elosun martxan jarri berri den estazio meteorologikoaren arduraduna Jose Antonio Azkaratek da. Argazklotan, datuak jasotzeko erabiltzen diren tresnen aurrean.

Luis Mari Agirre da arduraduna eta 1983. urteaz goerotik ari da horretan, hasieran Albitxu-basoko ur-depositoa- ren ondoan, bertan ari baitzen lanean eta gero, jubilatua ondoren, etxe ondora eramán zituen estazio meteorologikoa osatzen zuten tresna guztiak. Zitroen markako furgoneta zahar batean joan omen zen 1983ko otsailean Donostiara, Metereologia Institutoak Mirakruz kalean zuen bulegora, garai hartan ur-depositoan bere enkargatua zen Gregorio Ugartebururekin batera, lanerako interresgarria izan zitezkeen datuak neurtzeko tresnak eskatzera. Benito Vargasekin egon ziren orduan ere eta tresnak eskatu eta egun berean lortu. Otsailaren 5ean apuntatu zituen lehen datuak.


Goizeko 9:00etatik hurrengo goizeko 9:00ak arteko datuak dira (neguan)

Luis Mari Agirrek jaso eta apuntatzen dituenak, termometroarenak eta pluviometroarenak. Datu guztiok Josean Azkaratek Elosun jasotako bidea jarraitzen dute: tarjeta batean apuntatu eta hilaren amaieran Donostiara bidali. Luis Marik gorde egiten ditu datu hauek, gustoko dituen konparaketak egiteko: lehorreak, euriteak, uholdeak...

BAROMETROA ETA HIGROMETROA

Metereologia Institutoaren termometroa eta pluviometroaz gain, barometroa eta higrometroa ere baditu, presio atmosferikoa eta hezetasuna neurtzeko, nahiz eta azken datu hauek bereztat soilik izan. Bi aparailu hauek Ber-garako eskola zahar batetik eskuratuta-koak dira. >

Luis Mari Narbaitza-Bolu baserriaren ondoan duen estazio meteorologikoaren aurrean. Bertan jasotzen dituen datuak astero Berrigaran agertzen dira.



Metereologia-kontu hauetan ia hezortzi urteko esperientzia duen gizon honek, ordea, ez du eguraldi-gaie-tan aparteko zaletasunik eta, berak esaten duen bezalaxe, "hurrengo egunian iragartzen dut eguraldia". Gainera, bere ustez, eguraldia iragartzen ari direnen lanak ez du ia zerikusirik berak egiten duenarekin eta hauek, sateliteek bidalitako datuak eta bestelako aurrerapenak izan arren, askotan huts egiten dute.

Bestalde, alarmistatza jotzen ditu eguraldi-aldaketaren kontua ahotan dabiltenak. Orain dela gutxi irakurri duen artikulu baten arabera, azken berrogeita hamar urteetan gradu erdi besterik ez da igo tenperatura eta berak dituen tenperatura eta prezipitazio-kantitateen datuak ez dira nahiko Bergaran uda beroagoak edo negu hotzagoak, edo alderantziz, egiten dituen esateko. Bera baino zientifiko handiagoak behar dira horretarako.<

Bergarako datuak 1983tik hona

Temperatura hotzenak	Beroenak	Euria egun batean	Hilabete euritsuena
83/2/13: -8°	84/7/30: 39°	83/8/26: 133 l/m ²	92ko urria: 547 l/m ²
85/1/6: -10°	88/9/7: 39°	88/7/19: 137 l/m ²	86ko urtarrila: 375 l/m ²
	91/8/26: 39°		96ko otsaila: 352 l/m ²
	98/8/9: 40°		
Hilabete lehorrena	Urte euritsuena	Urte lehorrena	
85eko iraila: 1 l/m ²	1992: 1.937 l/m ²	1989: 997 l/m ²	
93ko urtarrila: 9 l/m ²	1996: 1.758 l/m ²	1990: 1.289 l/m ²	
89ko abendua: 14 l/m ²	1984: 1.715 l/m ²	1995: 1.240 l/m ²	

Luis Mari Agirre 1983. urtetik ari da datu meteorologikoak jasotzen, hasieran Albitxu-Berrin eta azkenaldian Narbaitza-Bolun


GRUPO ZURICH
ASEGURUAK


 **GABILONDO**
AGENTZIA
INMOBILIARIA

Gurutzne Elkoro Gabilondo Barrenkalea 44, behea
Tf./Faxa: 943 76 57 85

Zubieta 26
943 76 48 08

Bar Los Cazadores

AZAROAREN 13an, zapatua, **MUS TXAPELKETA**
Bikoteko 1.000 pezeta. Hasiera 16:00etan.



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK




AGENTEA-DELEGATUA



IRAEGI
ASEGURUAK


Ramon Maria Lili 6, behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54
Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



GURE MENDEA

XX. MENDEKO EUSKAL HERRIA LIBURU+CD-ROM ETA MAHAI JOKOAN

 FAMILIA ETA LAGUNARTERAKO EUSKAL "TRIVIAL" A


SEI GAIEI DAGOZKIEN KOLOREAK ESKURATU BEHAR DITUZU!

- 1.500 galdera-erantzun
- 14 urtetik gorakoentzat
- 2-8 jokalaria
- Geografia, kirola, historia, artea, hizkuntza...

ERNE GALDERA GAIZTOEKIN,
ZIRIEKIN ETA TRANPEKIN!



Inbertsio
eder bat!

 XX.MENDEKO EUSKAL KULTURA
Liburu+CD-ROMean

LIBURUA

- Ehun kronika
- Urtez urteko kronologia erreferentziala
- Ehun argazki.

CD-ROMa


- Ehun kronika
- Urtez urteko kronologia osatua
- Hemeroteka: iritzi artikulua, elkarrizketak, publizitate-iragarkiak
- Pertsonaia esanguratsuak
- Argazki ugari

 ARGIA ren
eskutik

ARGIA n salgai • Tel.: 943 37 15 45 • denda@argia.com

ALZAS elektragintza

Korronte alferno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzituen
konponketa eta
bobinaketa



Antigua auzoa 3, 20577 ANTZUOLA • Telefonoa: 943 76 64 14 • Faxa: 943 76 62 99



- Garajeko atearak
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko agente tresnak eta hauen mota guztietako kopiak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak

Kataide industrialdea 18 • Tf.: 943 79 10 20 • Faxe: 943 79 08 17
110 Postakutxa • ARRASATE

JUBAR[®]
ATEAK, S.L.

Neguko Ligako bigarren jardunaldia bihar Agorrosinen

Bergara Igeri Elkarteko zazpi ordezkari izango dira bertan



Bergara Kirol Elkarteko igerilariak bete bete daude Neguko Ligan. Zapatuan bigarren jardunaldia izango dute Bergaran.

Bihar, zapatua, Neguko Ligako bigarren jardunaldia jokatu da Agorrosingo igerilekuan. Bertan Azkoiti, Eibar, Azpeiti, Elgoibar, Legazpi, Oñati eta Bergarako 120 bat igerilari bilduko dira eta probak goizeko 10:00etatik 12:30etara bitartean jokatu dira.

Bergara Igeri Elkarteko ordezkariak hauek izango dira: Antxon Maiztegi, Ion Sasigain, Itsaso Arraiago, Eneritz Muguruza, Jayet Ruiz, Nerea Anduaga eta Amaia Rodriguez, 12 eta 17 urte bitartekoak eta infantil, kadete eta gazte mailan ari direnak. Igerilari bakoitzak bizpahiru probatan hartuko du parte. Neguko Ligako lehen jardunaldia Lezagapin jokatu zen duela 15 egun.

GAZTETXOAK FIN

Bestalde, igeri elkarteko 10 eta 11 urteko igerilariak zapatu arratsaldean Oñatiko Kiroldegian konpetituko dute. Leire Zeziaga entrenatzailearen arabera gaztetxo hauek dira mailarik onena erakusten ari direnak eta beraz emaitza onak lortuko dituztela espero daiteke. Dena den, denbora ez zaie kontutan hartzen baizik eta proba guztian zehar erritmo jarraian aritzea, gorabeherarik gabe.

Neritzel Albisua, Eli Lascurain, Goiatz Perez, Eider De la Roza, Maria Galarraga eta Maite Urzelaik osatuko dute bihar Bergarako taldea Oñatin, guztiak neskak hain zuzen. "Mutilek futbolerako joera izaten dute eta ez da erreza izaten igeri taldean hasteko animatzea. Dena

den joan zen urtetik igerilari kopurua mantentzen dugu" dio Leirek.

Nora Olabidk eta Leire Zeziaga bigarren urtez ari dira igeri taldea entrenatzen. Biak ere urtetan igerian ibilitakoak dira eta orain taldea zuzentzea egokitu zaie. Guztira, hogeita bost lagun daude taldean. Nagusiak egunero entrenatzen dira eta gaztetxoak, berriaz, astean pare bat aldiz.

Eneritz Muguruza, Ion Sasigain eta Antxon Maiztegi dira taldeko beterranoak. Leire Zeziagak esan digunez, "adin batetik aurrera zailagoa izaten da jendea motibatzea, azken batean igeriketarako sakrifizio bat eskatzen duelako eta ikasketengatik eta aisialdiagatik gero eta gehiago kostatzen delako hona etortzea. Maila

onean aritzeko ordu pilo bat sartu behar dira pisizinan".

Denboraldia uztailean bitartean luzatuko da eta tartean Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak jokatu dira. Leireren arabera, "ikus egin beharko da ligako probak zela joaten zaizkigun".

WATERPOLO TALDEA

Igeri Elkarteko zuzendaritzak ahalegin berria egingo du waterpolo taldea osatzeko. Beraz, dei egiten die waterpoloan jokatzeko interesa duten guztiei elkartearekin harremanetan jartzeko. Interesa dutenek Igeri Elkartera deitu dezakete, 943 76 00 04 zenbakira. Zuzendaritza martitzenero biltzen da, 19:30etatik 21:00etara Agorrosinen duten lokallean.



Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua Miguel ALTUNA

Arloren bat gainditu gabe duten ikasleei jakinarazten zaie arlo hauen azterketa egiteko matrikula epeak hauek direla:

REM 1. zikloa
REM 2. zikloa
Moduloa III
LOGSE batxilergoa


Azaroaren 1etik 30era

LH. 1. zikloa
LH. 2. zikloa

Urtarrilaren 17tik 31ra

INTERNETEKO BIDEA ZABALIK

450 MULTIMEDIA, REDDIS SERIEKOAK,
INTEL® PENTIUM® III PROZESADOREDUNAK



HD 8.4 Gb Ultra DMA • 64 Mb DIMM • Chipset oinarritzko plaka, 100 Mhz-koa • Monitorea: SVGA 0,28 15" TÜV • Kontrolagailua: PCI/ULTRA DMA 33 • Bideo kontrolagailua: ATI XPERT 98's AGP 2x (8 Mb) • Cache 512 Kb • Mousea • Teklatua • CD ROM 40x • Soinu-txartela: Sound Blaster PCI 128 • 60 wko bozgorailuak • ISO 9002 KALITATE BERMEA • BEEP-EN 3 URTEKO GARANTIA.



ETA GAINERA, DOAN, INTERNETEKO KONEXIOA,
BARRUKO MODEMA* ETA WINDOWS 98A

* Modema opari, internetera doan konektatzean.

**ORDAIN EZAZU 3 HILABETE
BARRU, INTERESIK GABE!**

REFLEXION 3rekin hartu eta eraman baino ez duzu. Erabakiko duzu hiru hilabete barru nola ordaindu: eskura interesik gabe edo epeka.

149.900 PTA

BEZarekin, 173.884 PTA

BEEP

BERGARA

Telesforo
Aranzadi 3. esk.
Tf.: 943 769127

DENDA BERRIA

**BEEP DA ESPAINIA ETA
PORTUGALEN
250 SALTOKI BAINO
GEHIAGO DITUEN
DENDA-KATE BAKARRA**

INTERNET:
<http://www.datalogic.es>

BEEP

AURREZTEAK BATU GAITU

Diapositiba emanaldiak Mendi Astearen bosgarren edizioan

Pol-Pol Mendizale Taldearen eta Udal Kirol Zerbitzuaren eskutik, mendi astearen bosgarren edizioa izango da datorren astean. Astelehenean, hilak 15, "Khan Tengri" izenburuko diapositiba emanaldia izango da 19:30etan Kultur Etxean. Luis Fernandez, Juan Manuel Lasa eta Igor Labaien bergararrak Txina eta Kirgizstan eta Kazajstan errepublikan artean dagoen Tien Shan kordilleran izan dira abuztuan. Bertan, Khan Tengri (6.995 m.) mendira igotzeko ahalegina egin zuten baina ezinezkoa izan zitzaizaien gailurrera iristea.

Martitzenean, Carlos Vieira onatiarraren, Mikel Saez zaldibitarren eta Alfonso Vizan madrildarraren "Kusun Kanguru 6.367m." emanaldia izango da. Eguaztenean, Eneko Pou gasteiztarrek izotzean egindako eskalada eta Juanito Oiarzabalekin batera Annapurnara egindako espedizio irudiak erakutsiko dizkigu eta bukatzeko, eguenean, Jose Mari Elsegiren "Samarkanda bidea" ikusteko aukera izango da. Hiru emanaldi hauek UNE-



Antolatutako emanaldietan eskaladako irudiak eta beste herrialde batzuetako paisaiak ezagutzeko aukera izango da.

Deko aretoan izango dira, 19:30etan.

Mendi asteko programa osatzeko hainbat mendi irteera antolatu dira. Domekan, hilak 14, nagusiei zuzenduriko Bakio-Jata-Gorliz egun osoko irteera egingo da 8etan Frontoitik. Hurrengo domekarako, hilak 21, gaztetoentzat Zarautz eta Zumaia aldera goizerako ir-

teera iragarri da eta egun berean gazteek Otzaurte eta Aratzera joko dute. Txartelak Pol-Poleko bulegoan eskura daitezke.

Bestalde, datorren astean eski eta mendi materialaren azoka txikia zabalik izango da Pol-Polen, astebarrian 19:00- 21:00 tartean eta zapatu eta domekan 18:00-21:00.

Igerilekuak itxita zapatu goizean

Bihar, zapatua, hilak 13, igerilekuak itxita izango dira 9:00etatik 14:00etara, bertan Neko Ligako igeriketa probak jokatuko direlako.

Goizeko 8:00etatik 9:00etara bainua hartzeko aukera izango da eta arratsaldean 14:00etatik 19:00etara.

Fronteniseko azken fasea

Astebukaera honetan frontenis txapelketako azken fasea jokatuko dira Angiozarren. Zapatuan goizeko 9etan final laudena jokatuko dira eta arratsaldean, finalerdia, 16:00etan. Domekan, 10etan, 3. eta 4. posturako partidua eta 11etan finala.

Gimnasia erritmikoa

Domekan, 11:15etatik aurrera, gimnasia erritmikoko euskal ligako jardunaldia jokatuko da Kiroldegian, taldeka zein banaka. Bost talde izango dira lehian: Beti aurrera eta Oskitxo arabarrak, Sakoneta bizkaitarra eta Donosti eta Ipurua gipuzkoarrak.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Arrasate

Bigarren mailako jubenilak
Zapatua. 15:30. Ipintza

Bergara-Mondragon

Nesken taldea
Zapatua. 17:15. Ipintza

Bergara-Mutriku

Lehen mailako kadeteak
Domeka. 10:00. Ipintza

Bergara-Lengokoak

Ohorezko kadeteak
Domeka. 11:30. Ipintza

SASKIBALOIA

Bergara-Señorio de Zuasti

Senior mutilak
Zapatua. 19:00. Kiroldegia

Bergara-Atletico SS

Zapatua. 16:00. M. Lagundia

Bergara-Ostadar

Junior mutilak
Domeka. 12:15. M. Lagundia

ARETO FUTBOLA

Bergara-Azpeitia

Jubenil mutilak
Zapatua. 12:30. Kiroldegia

Bergara-Goierri

Nesken taldea
Zapatua. 17:30. Kiroldegia

PILOTA

KLUBEN ARTEKO

TXAPELKETA

Orgaz eta Larrañaga

(lagunarteko partidua)

Bergara-Deba

Jubenilak (banaka)

Bergara-Tolosa

Lehen mailako seniorrak
Eguakitza. 20:00

Udal Pilotalekua

CAFE BAQUE TXAPELKETA

Finalerdia

Dominguez (Arra sate)-

Lopez (Deba)

Aranburu (Bergara)-

Jauregi (Soraluze)

Martitzena. 19:30

Udal Pilotalekuan

PROFESIONALAK

Errasti-Alustiza

(4 1/2ko Euskal Herriko Txapelketa)

Agirre-Patxi Ruiz

Berasaluze VIII-Zearra

Zapatua. 17:00

Udal Pilotalekua



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Patatus-Amozkibar
10:00: Bildurbarek-Patxaran Team
16:00: A Ze flaxa-Shaktale

Bildurbarek
Amozkibar
Aterpe

ZAPATUAN KANPOAN

11:00: Eri-Etengabe
12:00: Ion Autoak-Agiñazpi
17:00: Aterpe-Bar Canalejas
18:00: Mongatxurak-Agirrebeña
19:00: Soropotroak-Ortzi

Ion Autoak
Etengabe
Mongatxurak
Soropotroak
Agirrebeña

DOMEKAN BARRUAN

16:00: Tom Cat Argandolas-Amilox
17:00: Ari Ari-Pinturas Bergara
18:00: Urrutxurto-Bayer
19:00: FAC-Ufala
20:00: La Juve-Pagomendi

Ari Ari
Urrutxurto
FAC
La Juve
Ufala

EMAITZAK

A MULTZOA

Etengabe- Azpeitxi Jatetxea	0-8
Moskis-Sirimiri Eri	2-4
Pagomendi-Pinturas Bergara	5-0
Mo(ko)lotov-La Juve	2-7
Ari Ari-Irubide jatetxea	1-4

B MULTZOA

Amozkibar-Bayer	2-4
Mongatxurak-Tom Cat Argandolas	6-1
Amilox-Amozkibar	2-4
Agirrebeña-Bildurbarek Opel Lam	2-5

C MULTZOA

Ion Autoak-Soropotroak	0-7
Torrekoa-Vacalouras	4-5
Ortzi-Uve Bikoitza	5-2
Agiñazpi-Soropotroak	4-0
A Ze Flaxa Etxagi-Ion Autoak	7-2

D MULTZOA

FAC-Aterpe	4-0
Ufala-Errotagain	0-6
Bar Canalejas-Guadalest	10-7
Txipiron-Komando Piperrak	2-1

GORA ETA BEHERA



Liderrak eta Soropotroak-en garaipena

Multzo bakoitzeko liderrek euren partidua irabazi zituzten astebukeran eta sendo jarraitzen dute aurtengo ligan. Bestalde, aipagarria da Soropotroak taldeak lortutako lehen garaipena, Ion autoak taldeari 7 eta 0 irabaziz.



Ezin porteriarekin asmatu

Lehen garaipena lortu ondoren, Soropotroak-ek ezin izan zuen Agiñazpi taldearen porteria zulatatu. Ufala, Aterpe, Ion Autoak, Pinturas Bergara eta Etengabe taldeek ere ez zuten golik egin. Nekez izango dute *pitxitxia* eskuratzea...

ARGI! Antolaketa Batzordearen zigorrak

Moskis taldeari 3 puntu kenduko zaizkio joan zen asteko partidua arbitratzera ez agertzeagatik. Amozkibar taldeko Rafa Moral jokalariai partidua bateko zigorra ezarri zaio partidua berean bi txartel hori ikusi zituelako. Asteburu honetako ia izango da jokatu ezingo duen partidua.

SAILKAPENAK

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	21	7
2. Azpeitxi jatetxea	18	7
3. Irubide jatetxea	13	7
4. Sirimiri Eri	10	6
5. Moskis	9	6
6. Ari Ari	7	6
7. Mo(ko)lotov	7	7
8. Etengabe	6	7
9. La Juve	6	7
10. Pinturas Bergara	3	7

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	18	6
2. Uve Bikoitza	13	7
3. Ortzi	12	6
4. Shaktale	10	6
5. Vacalouras	10	7
6. Agiñazpi	9	6
7. Buya	7	6
8. Ion Autoak	6	5
9. Torrekoa	3	7
10. Soropotroak	3	4

B multzoa

	P	J
1. Mongatxurak	14	6
2. Urrutxurto	13	6
3. Bayer	11	6
4. Amozkibar	9	5
5. Bildurbarek Opel Lam	9	6
6. Patxaran Team	7	5
7. Tom Cat Argandolas	6	6
8. Amilox	6	6
9. Agirrebeña Jatetxea	6	6
10. Patatus	0	6

D multzoa

	P	J
1. Errotagain	18	18
2. Artusamak	16	6
3. Guadalest	12	5
4. Bar Canalejas	12	6
5. Xurruapak	11	6
6. FAC	8	6
7. Txipiron	7	7
8. Aterpe	3	5
9. Ufala	3	6
10. Komando Piperrak	0	6

mahoneroak



JOSE MARI ARAKISTAIN
Elgoibarreko entrenatzailea

Nire ustez, berdinketa gutxienez merezi izan dugu Bergararen aurkako partiduan. Lehen zatian hiru atakera garbi izan ditugu markagailuan aurreratzeko baina ez dugu asmatu eta barakatzen duzunean badakizu zer gertatzen den... Gure taldea partidua irabazten atera da hasieratik baina ez dugu zorterik izan aurretan. Dena den, pozik nago jokalariek egin duten lanarekin.

Bergarako taldea gustatu zait; lana ondo egin dute eta beraiek egin dute partiduko gol bakarra, oso polita gainera. Hirugarren maila oso kategoriatik zaila da; beterran garrantzitsua da. Garaipen honek konfiantza eman diezaiolke Bergarari hurrengo partiduetan presio gutxiagorekin jokatzeke.

Berrigara Saria

Elgoibarren kontrako partiduan hauek nabarmendu ditugu:

Markel Egaña 3 puntu
Gorka Dueñas 2 puntu
Mikel Osoro Puntu 1


Etxeo partidua bakarrik hartzen dira kontuan.

PILI GISASOLA



Osasun eta Dietetikaren
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83




OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Irala 3
Telefonoa:
943 76 48 26



IRRINTZI
k a f e t e g i a

kronika: lehen mailako futbol kadete taldea

Liderraren aurka ezinean

BERGARA 0

ARETXABAETA 3

1999-XI-6, 17:30
IPINTZA

Bergara: Ander Sesma; Josu Barrutiabengoa (Jon Elkoroberezibar, 67. min), Ander Cabezas, Ion Irazabal, Asier Arbulu; Aritz Balda (Ruben Gomez, 67. min), Iker Rollan, Mikel Juaristi, Jose Javier Carrero de Vesa; Francisco Javier Fernandez (Mikel Otaegi, 40. min) eta Ander Santamaria (Aitor Marauri, 57. min).



Lehen mailako kadeteek etxeko lehen partidua galdu zuten zapatuan.

Aretxabaeta liderraren aurka, Bergarako kadete taldeak 0 eta 3ko emaitzarekin galdu zuen zapatuan etxeko

lehen partidua Ipintzan aurtengo denboraldian. Bergararrak ez dabilta fin eta oraingoz garaipen bakarra lortu dute sailkapeneko azken tokian dagoen Eibarko Urki taldearen aurka. Dagoeneko bost partidu galdu dituzte eta Almenen kontra-

koa, berriz, berdindu egin zuten. Agustin Arbuluk eta Vicente Uribesalgo "Txara"k bigarren urtez zuzentzen duten taldea iaz mailaz jaitsi zen infantilen kategorian eta aurtengoa lehenbiziko denboraldia dute kadeteen mailan.

Esperientzia falta horrek taldearen egoera esplikatzeko, kasu gehienetan urtebete zaharragoak diren jokalarien aurka neurtu behar izaten dituztelako indarrak eta hori asko igartzen delako gaztetxoaren kategorietan.

Zapatuan, hala ere, Bergarako partidu ona egin zuten, lehen zatian batez ere. Bergararrek atxabalarraren erasoari eutsi ahal izan zieten eta etxekoek gol aukera pare bat izan zituzten, azken metroetan asmatu ez arren. Kontraeraso batean, UDAk partiduko lehen gola egin zuen eta bigarren zatian erosoago jokatu ahal izan zuten bisitariek. Bigarren gola lortu ondoren, partidua erabakita geratu zen.

Agustin Arbuluren arabera, "taldeak sailkapeneko erdialdean sailkatzeko maila dauka eta hurrengo partiduetan gora egingo dugulakoan nago, mutilei ilusioa ez zaie falta eta".

Domenean berriz ere etxean jokatu dute bergararrek, goizeko 10etatik aurrera Mutriko taldearen aurka.

ROBERTO LAISEKA / Euskaltel taldeko txirrindularia

"Tourrean parte hartzeak ez digu loa kentzen"

Euskaltel taldeari denboraldiko garaipenik garrantzitsuena eman zion txirrindularia Elorregin aflatzen izan zen eguakitzean. Bizkaitarra (30 urte) pozik azaltzen da amaitu berri den denboraldian egindakoarekin.

G. Zer suposatu dizu Abantosen amaitzen zen Espainiako Itzuliko etapa irabazteak?

E. Etapa hura irabazteak denboraldi oso bat justifikatzen du eta taldearentzat zein zalegoarentzat oso pozgarria izan da, Espainiko Itzuliak duen oihartzunagatik. Nire bizi guztian go-goan izango dut egun hori.

G. Denboraldiko balantzea positiboa da beraz.

E. Bai, maiatzean eta ekainean ondo ibili nintzen eta uztailera atsedena ondo etorri zitzaidan Vuelta gertatzeko. Taldeak ere orokorrean lan ona egin du eta pozik gaude lortutakoarekin.

G. Tourra, noizko?

E. Tourrean parte hartzeak ez digu loa kentzen. Dugarik ez, taldearentzat inportantea litzateke joatea baina oso zaila da. Interes ekonomiko asko izaten dira tartean eta nik uste taldeak dirua ordaindu behar duela parte hartu ahal izateko.

G. Zein da zure helburua datorren denboraldirako?

E. Euskal Bizikletan etapa bat irabaztea gustatuko litzaidake, etxean korritzean, gehien gus-tatzen zaidan proba delako.

G. Zein izan da aurten gehien arritu zaituen txirrindularia?

E. Vandenbroucke. Vueltako azken astean beste maila batean zegoela erakutsi zuen.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Pisua salgai Antzuolan. 94376 65 65.

Zabalotegi dorrea. 943 76 40 24.

Zubieta. 943 76 07 60.

EROSI

Pisua erosiko nuke Matxiategi inguruan. 649 27 54 36.

ERRENTAN EMATEKO

Logela bat errentan Donostian, Amaran. 943 76 55 26 (gauez).

Lareño plaian, abenduko zubian. 619 80 91 69.

ERRENTAN HARTZEKO

Bergaran edo inguruan. 943 76 03 31.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

lanetarako prestatuta. 607 34 46 58.

Uberan, bitlegirako aproposa. 80 m². 943 76 30 84.

Zubietan 136 m². 943 76 08 18.

4. LANA

ESKAITZAK

Administratibo edo idazkari lanak. Esperientzia. 943 76 35 95.

Etxeak garbitu edo zaharrak zainduko nituzke. 600 600 531.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94.

Umeak zaindu arratsaldez. 943 76 34 48 (Meyra).

Etxeo lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein lanetarako gertu. 943 76 00 24.

Esperientziadun tabernaria. 630 86 52 18.

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. 943 76 54 20 (Nerea).

Astebukaeran lan egituko nuke. 943 76 44 04.

Bikote batek Bergaran edo Arrasaten pisua hartuko luke errentan. 619 15 44 06 (Fran).

Bergara. 943 76 56 51.

ETXE KONPARTITUAK

Jacan, ski denboraldian, pisua konpartitzeko jendea behar da. 617 85 71 19.

Gela edo pisua konpartitzeko nahiko nuke. 943 76 06 25 (Shane).

Etxea konpartituko

nuke. 619 39 34 01 (Txomin).

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 00 93.

Garajea salgai Ibargarain. 943 76 44 25.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Antzuolan, Lizarragan, salgai edo alokairuan. 670 49 87 40.

Koldo Eleizalde. 943 76 36 34.

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 28 24/ 39 49 78.

Garajea salgai Bolun. 943 76 19 69.

ERRENTAN EMATEKO

Antzuolan, Ibarrrondon. 943 76 61 15.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokala (50-

70 m²) errentan hartuko nuke Antzuolan edo Bergaran. 943 76 62 63.

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

ERRENTAN EMATEKO

Ibargarain, bulego

Bolu
liburutegia

Enmarkazioak
Ispiluak neurria
Zurezko artikulua
Bergarako oleo eta
lumaxoak

Koldo Elizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

Uretako SOROSLEA behar da
Esperientzia eta euskara
menperatzea beharrezkoa

943 76 20 51 (Mireia)

Kamioia eta
negozioa
-Garraio txartela-
salgai

943 76 17 25
608 773 157
656 308 135

Barrarako
ESPERIENTZIADUN
ZERBITZARIA
behar da

943 76 55 00

GIDARIA
behar da
banaketak
egiteko

943 76 27 76

Ganbara
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

23 urteko mutila lanerako gertu informatika arloan. 619 15 44 06 (Fran).

Klinika laguntzaileak gaisoak edo zaharrak zaindiko lituzke. 608 77 01 33 (Asis).

Haurrak zaindu edo eldandari lanak egingo nituzke. 943 76 54 48.

ESKAERAK

Neska behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 05 55.

Emakumea: etxeko lanak eta umeak zaindu. 943 76 07 89 (gauzez).

Espereziatzen neska behar da andra edadetua zaintzeko. 943 76 07 24 (gauzez).

Emakumea: etxeko lanak eta haurrak zaindu. 943 76 38 06.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Majisteritzan diplomatuak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak eman. 943 76 30 28 (Ana).

Kitarra. 943 76 45 73.

Frantses klaseak arratsalde. 943 76 55 26.

Ingelesko majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 21 09.

Solfeo eta piano klaseak. 943 76 72 69.

ESKAERAK

Enpresaritzan mailako matematikako klaseak hartuko nituzke. 943 76 33 29 (arratsal.).

6. IBILGAILUAK

SALDU

Honda CBR 600 F motorra. 630 56 55 06.

Renault 5 (SS-P). 125.000. 943 76 26 19.

Ford Transit furgoneta (SS-AP) egoera onean. 943 76 02 55 (Karmelo).

Suzuki S1413 kotxea, 4 errobera eta lona opari. 943 78 14 72.

Opel Corsa. Merke eta ondo. 943 76 02 89.

Vespa Iris 200 motorra (SS-AF). 943 76 06 92.

Renault Clio Williams (SS-AP). 945 24 11 25.

Suzuki DR 650 motorra. 943 76 52 08 (Sonia).

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

7. ANIMALIAK

SALDU

Hamsterrak salgai. 943 76 70 15.

BESTELAKOAK

Hiru txakur ar eta eme bat emateko. Borondatea. 943 76 49 09.

8. DENETARIK

SALDU

Karabina salgai egoera onean. 943 76 38 87.

Ekonomika salgai, iturriko zein berogailuko ura berotzeko proposa. 943 76 62 36.

Apalak salgai. 943 76 25 79 (gauzez).

Piragua bat salgai. Oso egoera onean. 943 76 16 60 (Jabier).

Informatikako eta bule-

goko materiala eta altzariak eta ordenagailu portatila. 607 34 46 58.

Termo bat saltzen dut. 943 76 30 83 (Juli).

Play stationa: 3 joku, mandoa. 943 76 52 16.

Chaman piragua, txaleko berezia, pala eta kotxeko barrak. 50.000. 943 77 01 74 (Felix).

Airwalk snowboarda (1,55 m.) eta fijazioak salgai. 943 76 45 07.

Bizikleta-rodillo finkoa. 943 75 23 79 (Ana).

Kerosenoeko estufa ia berria. 943 76 01 99.

EROSI


Lehenago Peugeot 306 deportiborako llantak behar ditut. 943 76 08 26.

Xoxoa-ak ateratako LP-ak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar... 943 52 65 77.

GALDU

Erlojuua galdu nuen urri erdialdera. 943 76 29 74.

Zilar koloreko bizikleta desagertu da Ipintza inguruan. 943 76 56 31.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 24902/3

INFORMATIKA LIZENTZIATUA
Donostia. 24924/4

PRODUKZIO LANGILEAK, 2
Debabarrena. 25458/1

TORNULARIA
Bilbo. 25190/2

TORNULARIA
Tolosa. 25704/2

DELINEATZAILEA
Bilbo. 25219/3

PIOI ESPEZIALISTA
Pasai Antxo. 25703/0

SUKALDARIAK, 4
Bilbo. 23453/4

INGELES IRAKASLEA
Bilbo. 25375/3

INFORMATIKARIA
Bilbo. 25453/1

GAS INSTALATZAILEA
Gasteiz. 25292/3

TELEKOMUNIKAZIO-INJINERUA
Bilbo. 25328/1

INFORMATIKA TEKNIKARIA
Bilbo. 25452/1

KOMERTZIALA
Ibai eskuinaldea. 23187/8

PROGRAMATZAILEA
Beasain. 25011/4

TELEFONO INSTALATZAILEAK
Arabar lautada. 23223/5

TORNULARIA
Tolosa. 24210/3

FRESATZAILEA
Tolosa. 24212/2

INDUSTRI DELINEATZAILEA
Deba Behea. 25192/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Lan eskaintza

Berrigara

Sortu nahi den eskualde-telebistarako TELEBISTA TEKNIKARIA behar da

Baldintzak

- Euskara ondo menderatzea
- Ikus-entzutekoen ezagutza
- Gidatzeko baimena eta autoa

Lanpostuaren betebeharrak

- Kamaralari eta edizio lanak
- Astelehenetik eguakitzera
- Egun erdiko lan jarduna

Curriculumak aurkezteko azken eguna: azaroaren 26a

Curriculumak Berrigarako erredakzioan jasoko dira: Errotalde Jauregia z/g 20570 BERGARA

Sortu nahi den eskualde-telebistarako lan poltsa osatzeko KASTINA egin nahi da

Beharrezkoa izango da adinez nagusia izatea eta euskara ondo menderatzea.

Interesa dutenek eskaria egin dezakete Berrigarako erredakzioan azaroaren 26a baino lehen.

Madrileko Orkestra eta Abesbatzaren kontzertua San Pedro parrokian zapatuan

Udakzen Kulturalaren egitarauaren barruan Bergarako Udalak antolatuta kontzertua izango da zapatuan San Pedro parrokian, Madrileko Unibertsitate Autonomoko Orkestra eta Abesbatzaren eskutik.

Bihar, zapatua, azaroak 13, Madrileko Unibertsitate Autonomoko Orkestra eta Abesbatzaren kontzertua izango da San Pedro parrokian arratsaldeko 20:00etatik aurrera, eta sarrera doan izango da bertaratu nahi duen guztientzat.

Madrileko Unibertsitate Autonomoko Orkestra 1992an sortu zen. Ordutik hona, bai musikariaren kopuruan eta baita kalitatean ere asko irabazi du orkestrak, eta gaur egun 49 musikari eta ikaslez osaturik dago.


Espainiako eliza eta auditorio ugarietan eskaini izan dituzte kontzertuak Unibertsitate Autonomokoek, eta baita irrati eta telebistan ere.



Behin baino gehiagotan aritu dira batera Madrileko Orkestra eta Abesbatza.

Abesbatza, berriz, hurrengo urtean sortu zen, 1993an. Aipatzekoa da kantu gregoriano, obra klasiko zein kantu herrikoiak dituztela beraien erreperitorio-

an, nahiz eta datorren zapaturako egitaraua oraindik zehaztu gabe dagoen. Aukera paregabea, zalantzarik gabe, zaletu guztientzat.



Iker martitzeneko aurkezpeneko une batean.

Iker Badiesen akuarela lanak Kultur Etxean ikusgai

Azaroaren 9an, martitzena, zabaldu zen Iker Badies margolari gaztearen akuarela erakusketa, eta hilaren 21era arte izango da ikusgai Kultura Etxeko aretoan.

Bartzelonan jaio eta gaur egun Donostian bizi den arren, Bergaran bizi izandako artista dugu Iker

Badies. Iaz bukatu zituen Arte Ederretako ikasketak Leioako Unibertsitatean, eta erakusketa bat baino gehiagorik burutu du jadanik urtebete honetan; azkena, Donostian joan zen irailean. Bere akuarela lanetan, Bergara eta Donostiako hainbat paisaia eta txoko ikus daitezke.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

kronika



Milteu armonikarekin eta Manu Galvin kitarrarekin aritu ziren domeka iluntzean.

Blues gau atsegina Jam-en

Kalitatezko musikariak, baina jende gutxi

Jende gutxi hurbildu zen arren, giro eta musika ezinhobeaz gozatu ahal izan zuten domeka iluntzean Jam-era inguratu zirenek, Jean Jacques Milteu eta Manu Galvinen eskutik.

Azkenaldian, bai Udazken Kulturaren egitarauaren barne, eta bai, kasu honetan, Jam aretoaren eskutik, kalitatezko bluesaz gozatzeko aukera izan da Bergaran.

Pasa den domeka iluntzean, Pariseko bi musikari izan ziren Jam aretoan: Jean-Jacques Milteu armonikarekin eta Manu Galvin gitarrarekin.

Jean-Jacques Milteu Parisen jaiotako armonikajolea da; oso gaztetan erakarri zuen bluesak, eta musika munduan ari da harrezkero. Milteu berak BERRIGARARI adierazi zionez, pub txikietan hasi zuen bere ibilbide profesionala, eta gure artean oso ezaguna ez den arren, gaur egun pertsonaia oso fama-

tua ei da Frantzian. Bestalde, beraien musika guztia blues-ean oinarritzen den arren, nabaria da musika estilo ezberdinen eragina, country-arena batez ere. Milteu-k esan zigunez, musikari bezala "XX. mendeko produktua" dira, "mende honetako musika estilo askoren eraginpean hazi eta hezi gara" gaineratuz.

Oso jende gutxi inguratu zen arren, 30 pertsona inguru bakarrik, pozik azaldu ziren blueslariak, hemengo publikoa gustoko dutelako, musikaz asko dakien publikoa baita beraien esanetan. Musikariek, publikoarekin konektatu eta jendea animatzeko gaitasuna erakutsi zuten, kontzertuaren momentu batean jendartera ere jaitsi zelarik Milteu bere armonika eta guzti.

Kontzertua amaitu zenean, Milteu eta bere taldearen hainbat diska erosteko aukera izan zen, eta baita jendeak erosi ere.

Mariaren Lagundiari buruzko liburua aurkeztu zen

Bergarako Mariaren Lagundiaren bigarren mendeurrenaren ospakizunen barruan, Manoli Urria bertako moja eta historialariak, "Bergarako Mariaren Lagundia. Bi mendetako historia" liburua aurkeztu zuen asteazkenean Udaletxean.

Udaletxeko Areto nagusia lepo bete zen, eta han izan ziren, besteak beste, Jose Maria Setien Gipuzkoako Gotzaia, Mariaren Lagundiako ordezkariak, Bergarako alkatea eta baita Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko ordezkari bat ere.

Hizlari guztiek azpimarratu zuten Mariaren Lagundiako Ikastetxeak Bergarako herrian izan duen garrantzia. Manoli Urrak berak aipatu zuenez, liburuaren helburua, Mariaren Lagundiaren historia herriari ezagutaraztea da, eta "beraien helburuak lortzeko emakume batzuen esfortzuaren kronika" bezala definitu zuen bere liburua.

Urteurrenaren ospakizun ekitaldiei amaiera emateko, hitzaldi bat izango da datorren azaroaren 17an, Jaume Funes psikologoaren eskutik, eta hilaren 20ko bazkari herrikoiarekin emango dira amaitutzat ospakizun ekitaldiak.



ileapaindegia
eder gela

—disdira—

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

KOROSTI
INMOBILIARIA

Etxebizitza berriak Antzuolan

2/3 gelakoak.

Egilea: Promotora Latxartegi.

Salmenta eta Informazioa: Korosti inmobiliaria.

Korosti inmobiliaria: Santi Kutz 8, behea. 20230 Legazpi
Tf. eta faxa: 943 73 05 25.

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Solidoen edo likidoen gainak edo kanpoko aldeak. 2. Ospea. Denbora-tarte. 3. Zorro handi. Oparoa. 4. Auzipe-tuen defentsa egiten dutenak. 5. Atzikia. Sail. Lehena eta azkena. 6. Hitz. Uztai. Bokala. 7. Masurioa. Barre xume. Interjekzioa. 8. Sabelaldeko barne-organoa. Gaixo. 9. Herri giputza. Bokala. Garaia. 10. Katu jaio berriak.

Goitik behera

1. Gizonzkoak. 2. Atabal jolea. 3. Nafarroako mendialdea. Bokala. Norat atzikia. 4. Nau. Kasik. Bokala. 5. Aluminioa. Ataurreak. 6. Itsusia. Uranioa. 7. Bokala. Jazarleku-mota. Amerizioa. 8. Gurpilik gabeko gurdia. Bokala. Baita. 9. Lauoinka. Zoroa. 10. Suari dariona. Puskak.

Soluzioa

10. Kea. Zatiak. 9. Apoka. Eroa. 8. Lera. U. Ere. 7. Zantarra. U. 6. Nauka. la. A. 5. Herri giputza. 4. Atabal. 3. Atabal. 2. Atabal. 1. Goitik behera. 10. Katu jaio berriak. 9. Apoka. Eroa. 8. Lera. U. Ere. 7. Zantarra. U. 6. Nauka. la. A. 5. Herri giputza. 4. Atabal. 3. Atabal. 2. Atabal. 1. Goitik behera.

bonofotoa




Miguel Angel Elkorobereibar

Zein da baserri honen izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Zein da Eusko Jaurlaritzako garraio sailburua?
A- Mari Karmen Garmendia
B- Iñazio Oliveri
C- Alvaro Amman
2. Zein mendatetan amaitu zen Roberto Laisekak Vueltan irabazitako etapa?
A- Cerleren
B- Anglirun
C- Abantos
3. Belatz kantinan izan ezik, beste non dago Bergaran estazio meteorologikoa?
A- Narbaitza-Bolun
B- Aranen
C- Seminarioan



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketako bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Nora Blanco**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketako bonoa. Zorionak Norari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Luis Larrañaga "Kikio" eta Don Pedro Garitano** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA _____

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Bilore
garbigarria. 3 kgr.
525 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Etxian asko egoten ez dan 23 urteko gazte honek Turismo ikasi dau. EEBBetan eta Frantzian egon da hizkuntzak ikasten. Oñatiko Turismo Bulegoan egitten dau lan eta Bergaran, Etxagi tabernan. Cool Panic musika-taldeko partaide da.

Sarri egitten dozu ingelesez berba turistekin?

Batzutan, baiña asko ez. Gehixenak estatukoak die.

Bergaran ez dago turistarik zu Oñatira juateko?

Bai, badago, baiña Oñatin eskaini zozten lana.

Herri politena zein da, Bergara ala Oñati?

Neretako, Bergara.

Zein da Bergarako tokirik ederrena?

Goiko plazia.

Nora eta norekin joango zinake oporretara?

New Yorkera, lagunarekin.

Sinisten dozu maitasunean?

Bai.

Eta zeintzuk die maitasun-errezetaren osagaixak?

Nik ez daukat bape.

Errezeta-kontuekin jarraituz, zelako sukaldarixa zara?

Nahiko ona.

Zeintzuk die zure plater eta edari gogokenak?

Txangurroa eta zerbezia.

Zer edaten da gehixen Bergaran?

Oin, azkenaldixan, Peché: whisky-a melokotoi saboriarekin.

Nola portatzen da jendia tabernariekin?

Normalian ondo.

Itziar Iturbe

Eta zu bezeroekin?

Ni oso ondo.

Sekretorik kontaktzen dotzue zure bezeroek?

Batzuk bai.

Zelakuak?

Danerakoak: lanekuak, maitasunezkuak...

Lagatzen dotsezu kantuak eskatzen?

Bai, askotan.

Zein musika-mota jartzen dozu?

Rocka dot gustokua.

Eta zure taldearena?

Ez, ez jat gustatzen jartzia.

Nundik dator Cool Panic izena?

Elliot Murphy-ren kantu bat da.

Abeslari ona zarela uste dozu?

Bueno, konpontzen naiz.

Definitu egiten eta abesten dozuen musika.

Punk-rocka.

Noiz izango da hurrengo kontzertua?

Abendu inguruan igual, Donostian.

Gurasoak gonbidatuko dittuzu?

Ez.

Nolako gustatuko litzakizu izatea?

Gustora nago naiezen bezalakua izanda.

Askok sufritu dozu galdera hauek erantzuten? Zergatik?

Bai, zaila da erantzutia.



EDEL
TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

iRUDI

Erlojudenda
Bitxitegia

Ibargarai 2
943 6 51 65

SUBIJAi

Gazteentzako moda


Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32



Antzuolar taldea Amezketan

Aste honetako erretratu zaharrean Antzuolako lagun koadrila ederra ageri zaigu. Argazkia Amezketan aterata dago orain dela 45 urte. Bertan agertzen direnek egun osoko irteera egin zuten udaberri aldera; Antzuolatik Zumarragara oinez joan, bertan trena hartu eta Amezketan Larraitzerako bidea hartu zuten. Argazkia ikustean izango dute bai orduko kontuak gogoratzeko aukera. Garai hartan 20-25 urte bitartean zituzten eta Amezketan txistu, danbolin eta guzti ibili ziren. Horra hemen zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

Goian: ezezaguna, Piedad Lete, ezezaguna, Manuel Garitano, ezezaguna, Julian Iparragi-

re, Jesus Agirre, Pablo Legorburu, Jesus Alzalai, Jose Julian Zubillaga, Gervasio Legorburu, Enrique Jauregi eta Fernando Azkarate.

Erdi makurtuta: Begoña Olabarria, Asuncion Larrañaga, Karmen Olabarria, Karmele San Sebastian eta Pilar Larrea.

Bigarren ilaran: Ana Mari Lete, Mari Luz Arregi, Miren Aristi, Mari Karmen Jauregi, Ana Mari Iturbe, Maria Josefa Igarza, Nati Narbaiza eta Purita Zabalo.

Aurrean: Rosario Garitano, Rita Etxebarria, Felix Agirre eta Jose Mari Kortabarria.

Argazkia: Rosario Garitano

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

**Arantza
Erlojutegia**

Barrenkalea 4
943 76 10 04



zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Manso optika

Zugandik gertu

Betaurrekoak • ukipen lenteak • eguzkitako betaurrekoak • Multifokalak • Audiometriak

betaurreko

Graduatuak



Adin gustietarako

1.745 modelo baino gehiago



Zatoz ikustera, oso erraz hartuko duzu erabakia.

Prezio honetatik aurrera

7.900 PTA

ukipen

Lenteak

Izan kofidantza optiko optometristengan
Garantia osoa



PUREVISION™
(balafilcon A)



Egunero erabiltzeko,
"erabili eta bota"

Botatzeko hilabeterako lenteetan erosoan! Jarri itzazu eta ahaztu hilabeterako!

Lotarako ere ez dituzu kenduko



P. MANSO
Optika

Irizar 2 BERGARA
Telefona: 943 76 27 86



**ESKAINITZA
BEREZIAK**

**Sofa
leku**

**HIRU JOKO
LARRUA
OIHALA
3+2**

GRUPO

**Amuebladora
Mondragonesa**

